



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	8.654
Zabalera:	450,83 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Nafarroako Eki-erdialdea (ikus mapa)
Udalerriak:	Beire, Caparros, Murillo el Cuende, Olite, Pitillas, San Martín de Unx, Ujué

Nafarroa2000 zonifikazioan Erriberriko eskualde oinarrizkoa, nagusiki, Nafarroako Eki-erdialdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Nafarroako Eki-erdialdeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela eta %24,3k kontsumitzen dute tabakoa egunero.

2. Komunitatea eta osasuna

Erriberriko eskualde oinarrizkoa Nafarroan zabalera gehien duen bigarrena da, Zangozaren ondotik. Bertan, biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 35etik 60 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Erriberriko eskualde oinarrizkoak handienetakoa du bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etxeen portzentajea (%22,8), eta handiena, berriz, 14-19 urteko amak dituzten jaioberrien tasa (%16,7).

Erriberrikoa dago emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, urteko kontrol erregistratua duten hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%58,6) eta emakumezkoen (%19,3) eta gizonezkoen (%10,6) antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez. Eskualde oinarrizkoaren mailan kalkulatu diren gainerako adierazleetan, Erriberri Nafarroako batez bestekoan kokatzen da, nonbait hor.

3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Peor	Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor	Mejor		
Faktore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	72	8,3	9,4	3,7				27,0
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	20	16,7	5,4	16,7				0,0
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	115	7,1	9,2	15,7				6,7
	4. Langabezia tasa #	2016	-	11,1	12,5	14,5				7,9
	5. Muturreko pobrezia arriskuaren tasa	2015	-	8,0	8,8	16,6				4,7
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	1.969	36,2	29,5	63,9				2,7
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	40,1	39,0	49,1				15,8
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	22,8	19,1	35,1				10,3
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	46	56,5	61,2	44,4				80,0
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	14	22,5	20,2	27,5				16,0
	11. Alkoholarekin kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	28	39,1	37,8	45,1				28,2
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	17	24,3	22,6	28,4				19,6
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	35	22,5	20,5	25,0				19,2
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	908	19,3 *	17,7	21,9				11,7
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	440	10,6 *	8,6	12,5				7,3
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	21	4,8	4,3	8,7				2,0
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	532	6,8	7,1	9,0				4,6
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	372	68,4	67,8	47,4				94,2
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	844	58,6 *	65,4	49,9				90,7
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	85,6	86,2	83,6				87,6
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	80,0	80,1	78,0				84,1



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Nafarroako Eki-erdialdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduako ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 22,9 eta gizonezkoak 10,8); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 8,1); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.